



San Markos Mankomunitateak **merka2sanmarcos** bigarren eskuko merkatuen laugarren edizioa antolatu du, aurten zenbait berrikuntza ekarriz. Horien artean merkatuan bertan egon nahi ez duten edo ezin daitezkeen herritarren parte-hartzea ahalbideratuko duen Gordailu salmentako puntua azpimarra dezakegu. Ekimena erakunde honek hondakinak murriztu eta prebenitzeko duen ekintza planaren barruan txertatua dago. Horrez gain, herritarrei hondakin gutxiago sortzeko, herritarrei kontsumo arduratsuagoa egitearen garrantzia zabaldu nahi zaie. Gaur egungo kontsumo-ohiturak direla-eta, askotan oraindik ere erabilgarriak diren gauzak botatzen ditugu; gure iritziz, merkatu hauen bidez hondakintzat jotzen ditugun objektuei balioa ematen zaie, baita erabilgarritasuna ere.

Beraz, urteroko bigarren eskuko azoka hauek, erabilitako mota guztietako gauzak saldu eta erosi nahi duten pertsona guztientzako topagune ez ezik prebentziorako topagune ere izango dira.

Guztira 11 merkatu egingo dira, San Markos Mankomunitateko partaide diren herri bakoitzean bana eta Donostian berriz bina.

INFORMAZIO OROKORRA

-Edozein herritar, erakunde, elkarte, ikastetxek... parte har dezake salmenta- edo truke-postuetan.

-Parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da hemen eranskin moduan gehitzen den "Parte hartzeko orria" bete eta antolatzaileei bidaltzea, baita merkatu bakoitzean parte hartzearen baieztapena jasotzea ere.

-Gordailu salmentan parte hartzeko merkatu egunean 9:30 eta 10:30ak bitartean azaldu beharko litzateke, ekarritako gauzen zerrenda eta salneurria zehaztu eta objektu bakoitza etiketatu antolakuntzak emandako itsasgarriekin. Ondoren, merkatuaren amaieran (13:45) berriz etorri beharko da irabaziak jaso eta saldu ez diren objektuak berreskuratzen.

-Parte hartzea doakoa da bai salmenta postuetan baita gordailu salmentan ere.

-Antolakuntzak salmenta postuentzako 6x3 m-ko 14 karpa izango ditu. Karpa bakoitzean 2 mahai jarriko dira (2,4 x 0,9 m). Karpa bakoitzean hiru parte-hartzaile kokatuko dira. Elkarte eta ikastetxeen kasuan karpa erdia jarriko da beraien esku.

MERKATUEN EGUTEGIA

DATA FECHA	UDALERRIA MUNICIPIO	LEKUA LUGAR	EGURALDI TXARRAREKIN CON MAL TIEMPO
azaroa / noviembre 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	7	PASAIA	Gure Zumardia plaza Axular plaza
	8	URNIETA	San Juan plaza Pilotalekua / Frontón
	15	ERRETERIA	Gamon Zumardia Alameda de Gamón Koldo Mitxelena plaza (Esmalteria)
	21	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Urdaneta kalea junto Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan Urdaneta kalea junto Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan
	22	LEZO	Euskal Herria plaza Kiroldegia / Polideportivo
	28	HERNANI	Atsegindegiko plaza Atsegindegiko plaza
	29	USURBIL	Dema plaza Pilotalekua / Frontón
abendua / diciembre 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	5	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Urdaneta kalea junto Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan Urdaneta kalea junto Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan
	6	OIARTZUN	Done Eztebe plaza Madalensoro pilotalekua / Frontón Madalensoro
	13	LASARTE-ORIA	Dorre parkea Michelingo tenis-pistak / Pistas de tenis Michelin
	19	ASTIGARRAGA	Barandiaran plaza Pilotalekua / Frontón

ORDUTEGIA (JENDEARI ZABALIK): 10:00-14:00

SALTZAILEEK HURRENGO KONPROMISOAK HARTUKO DITUZTE:

- 1-Salgai jartzen dituzten produktu guztiak erabiliak izango dira. Ezin da material berririk, stockekorik... saldu.
- 2-Salgai jartzen diren produktuak egoera onean egongo dira.
- 3-Salgaien eta postuaren aurkezpena zainduko dira.
- 4-Muntatzeko eta desmuntatzeko ordutegiak errespetatuko dira. Saltzaileak bere postuari arreta jarri eta berau prest eduki beharko du zabaltze-ordurako (10:00etarako). Merkatua irekia dagoen bitartean eta itxi arte bere postuaren ardura izango du.
- 5-Ibilgailu guztiak merkaturako aukeratutako lekutik eta inguruetatik kanpo egon beharko dute gutxienez zabaldu baino 15 minutu lehenago. Merkatua itxi baino lehen ez da ibilgailurik sartuko ezarritako eremura.
- 6-Saltzaileak merkatu bakoitzeko baldintzetara (irisgarritasuna, sarrera, lekua...) egokitu beharko dira, eta ahalik eta era egokienean antolatuko dira trabak ahal diren neurrian saihesteko. Horretarako, antolatzaileen azalpen eta iradokizunak jarraituko dituzte.
- 7-Saltzaileen produktu eta materialek ez dituzte karpa bakoitzean jarriko diren informazio lonak estaliko.
- 8-Parte hartzaileek antolatzaileek emandako ebaluaketa orriak beteko dituzte.
- 9-Salmenta-postu bat erreserbatua izan arren, bertaratu ezinez gero, antolakuntzari ahalik eta azkarren jakinaraziko zaio. Arrazoirik eman gabe ez azalduz gero antolakuntzak hurrengo merkatuetara begira neurriak har ditzake
- 10-Merkatua amaitzean, salgai guztiak jasoko ditu bertan hondakinik utzi gabe.

ANTOLAKUNTZAK...

- 1-Kokapenak eta merkatu bakoitzeko salmenta-postu kopurua erabakiko ditu. Postuen banaketa jasotako eskaeren arabera egingo da.
- 2-Merkatu bakoitzaren kokapenak ahalbideratzen duen heinean, ahalik eta postu gehien ematen saiatuko da. Horretarako, hobe delakoan, bi saltzaile karpa berean kokatuko ditu zenbait kasutan.
- 3-Parte hartzeak merkatu bakoitza baino, gehienez, 4 egun lehenago baieztatzeko eskubidea izango du.

4-Eskaera postuen kopurua baino eskaera handiagoa denean, merkatua ospatzen den herriko elkarte eta partikularrek lehentasuna izango dute. Gainera, ahalik eta produktu eta saltzaile aniztasun handiena eskaintzen saiatuko da.

5-Salgaien zamaketa lanak egiteko ahalik eta baldintza onenak lortzen saiatuko da.

6-Ez du saltzaileen ibilgailuentzat aparkaleku eremu bat erreserbatzeko konpromisoa hartzen. Aukera hori dagoen kasuetan informazio zehatza emango da.

7-Gordailu salmentan herritarrek ekarritako salgaien zaintza eta salmentaz arduratuko da. Antolakuntzak ez du lapurreta edo galeren gain erantzukizunik.